

25

KANTA EDER

(Dantza-koplak)

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO

2008

© Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 944 437 684 - Fax: 944 437 758
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-3520-08
ISBN: 978-84-86833-99-2

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Aurkibidea

Berbaurrekoa	7
Aguztuen lehenengoan	9
Aitak errue dauko	10
Aita san Antonio	11
Altuan Arantzazu	12
Ama zeuriak neuri	13
Artajorrara noa	14
Baratzeko pikuak	15
Domingo da domeka	16
Eibarko armeruak	17
Eperrak kantatzen du	18
Ezkondu nintzanean	19
Gora-gora begitu	20
Hasiko naz hasitera	22
Izen itsusia da	23
Josepantoni kolore gorri	24
Lapikotxo txurian	25
Laztanen portalian	27
Mahatsak orria zabal	28
Mendi altuen edurre	29
Mendirik mendi lainuak	30
Oletan ei dagoz	31
Oraingo neskatilen	32
Txikitxu polit majoa	33
Urkiola ganeko	34
Utzi Lekunberri	35
1. eranskina	36
2. eranskina	41
3. eranskina	44
4. eranskina	45
Iturriak	46

Berbaurrekoa

Dantza-kopla zaharrak sasoi baten orain baino sarriago kantetan ziran erromerietan. Literaturako beste hainbat jenerogaz jazo izan dan moduan, dantza-koplak be entzunez ikasi eta ahoz transmitidu izan dira. Baina XX. mendean *Euzkadi* lako egunkarietan hainbat biltzailek jaso egin zituen koplok. Horreek guztiok eta beste hainbat berreskuratzeke urteetako beharra egin eban Jabier Kalzakortak. Halan, Labayru Ikastegiak 2007an argitaratu eutsan *Dantza-kopla zaharrak* izeneko liburua. Bertan XIX. mendeko euskal koplaritza zaharraren nondik norakoa jasoten da eta kopla sailik eder eta osoenak emoteko ahalegin ikaragarria egin eban Jabier Kalzakortak.

Lan hori da, hatan be, esku artean daukazun honen oinarria eta, beraz, bildumearen izenagaz bat, lan oparo eta aberats horretatik, liburutxu honetarako 25 kopla sorta aukeratu dira.

Hautaketa egiteko erispide nagusia, dagozan kopladi guztietatik gitxien txortatxu bana hartzea izan da, eta batzuetan bi edo hiru be hartu izan dira. Koplak gehien baten unidade solteak diranez, ez dabe gai aldetik loturarik hain gitxi hari narratiborik, batzuetan bik edo hiruk alkarregaz txortea egiten daben arren. Koplen ordenari jagokonez, barriz, liburuan datoren berbera da, bertan dagozan kopla-segida berak, hatan be.

Kantutegi honetarako, ostera, jatorrizkoan ez bezala, irakurle edo kantariarentzat ulergarriago izan daiten ortografia pitin bat ikutu da, gaurko grafiara ahal dan gehien ekarriaz, beti be neurria eta errima jagonaz. Beste alde batetik, *Dantza-kopla zaharrak* liburuan esaten dan lez, askotan gatxa da kopla moltso honeei musikea ipinten, doinu asko eta ezbardinakaz kantau izan dira eta. Horregaitik, ez deusagu kanta bakotxari jagokon partitorea ipini, ezpada, atzean eranskin moduan, soinuagaz jo ahal izateko, partiturak dagoz. “Aita san Antonio” eta “Josepantoni kolore gorri” kanten kasuan, ostera, eurok abesteko gehien erabili izan dan doinua ipini dogu.

Gehientsuenak ezagunak dira. Halan ba, zoazan hurrengo jai edo erromeriarra aldean eroaizu liburuska hau eta abestuaz gozamenean igaro daizula.

Gorane Intxaurraga
Jabier Kalzakorta
Labayru Ikastegikoa

Aguztuen lehenengoan

Aguztuen lehenengoan
san Pedro Mendixakue,
ez zaitela ahaztuko
orduako iluntzekue.

Altuben san Antonio
Abadinoko lurrien,
hamaikak bisitatzen du
santue bere egunien.

Nabarniz-Amoroto
Santa Eufemia-mendi,
haretan hiruretan
haize hotza sarri.

Amoroto koskonilo
Berritxua fanfarrilo,
Mendexa tremesa poke,
Lekitto gosiek itto.

Andre Marixe irailgo
Arraten erromerie,
neu bere haraxe noie
ez badau eiten eurie.

Santa Eufemiako zelaien
laban einde jausi nintzen,
ez jaten hazurrik hausi
mamine mailatu jaten.

Amoroto
2. eranskina

Aitak errue dauko


Aitak errue dauko
amak handiago,
han dauzen mutilekin
itxi dotselako.

Ama gure badozu
zeruen sillie,
emon alabieri
gaztetan lotsie.

Hasi Fruizen eta
Artebakarrera,
ez dala politaurik
Siriakatxu baino.

Amak esaten dotso
Siriaktxuri,
ez edateko urik
kopatxu bat barik.

Fruiz
1. eranskina



Aita san Antonio

Aite san Antonio
Urkiolakua,
hamaika neska-mutil
buztartutakua.

Askok egiten deutso
san Antoniori,
egun batian juan
da bestian etorri.

Urkiolara juenda
zapatak apurtu,
aite san Antoniok
barriak eingo'itu.

Durangon bazkalduta
Mañarien gora,
aldats haundie dago
san Antoniora.

Durangon bazkalduta
Txakurzulon gora,
abarka sopitxia
ipurdien gora.

Egin, egin gaztiak
egin ahaleginek,
ez jatzue damutuko
gaur ondo egine.

Markina
3. eranskina

Altuan Arantzazu

Altuan Arantzazu
bajuan Oñati,
eder galanten bila,
urten dot etxetik.

Ederra gura neuke
galanta ahal balitz,
igual aberatsa
berez ona balitz.

Ederra ta galanta
biak leku baten,
ona ta aberatsa
neke da bilatzen.

Gonea zuri ta
mantelina beltza,
hori da begiaren
argiaren ertza.

Ederra da larrosa
zuria dalako,
asko engainatzen du
hobea dalako.

Mutil bekozko ilun,
begiak logure
baitz uste dok, baino
ez nauk hire gure.

Sagarraren lorea
haizeak darama,
zurekin nere pena
hala balerama...

*Arantzazu
1. eranskina*

Ama zeuriak neuri

Ama zeuriak neuri
kalian topauta,
ez deust agurrik egin, maitia
burua birata.

Ama zeuriak neuri
ez agur eiteko,
ze palazio dauka, maitia,
zeuretzako?

Palazio eder bat
hatxaren ganian,
ez jako euririk sartzen, maitia,
aterri danian.

Pasaten nazanian
zeure atetatik,
negarrak urtetzen deust, maitia,
begi bietatik.

Begia barrez-barrez
bihotza negarrez,
sarri apartatzen naiz, maitia
zeugandik dolorez.

Maitia maite zaitut
zeuk halan banozu,
biok biziko gara, maitia,
zeuk gura badozu.

Esan zirazun, baina
ez neutsun sinistu,
biharko ninduzula, maitia,
diruak banituz.

Diruagaitik baino
bihar ez banozu,
zuaz Indietara, maitia,
ein zaiz indianu.

Indiak irabazten
errezak ez dira,
zeure begi ederrak, maitia,
gatxaguak dira.

Neure maite polita
Donostian dago,
iparra gura neuke, maitia,
mendebala dago.

Hau da beti-betiko
mendebal urtia,
eguntxurik batere, maitia,
iparririk gabia.

Esaten zeustanian
mantekia legez,
biziko giniala, maitia,
erregina legez.

*Ondarroa eta Lekeitio
1. eranskina*

Artajorrara noa

Artajorrara noa
lubarri barrira:
bedarra jorratu ta
artua sasira.

Igetargi zuritan
Igeko kalien:
—Esaidazu Maritxu
nun bizi zarien.

Amaren txitatxuak
ia dira hazi,
nire nobiotxuak
jun dira igesi.

Eidertxu doianean
Bilbora plantxera,
handik ekarriko dau
dotia etxera.

Eidertxu doianean
Bilbora trenien
Anertzek urtengotso
automobilien.

Igorrek atrapau dau
sasian zozue,
Eiderrek prestau deutso
saltsatxu gozue.

Gorengo kamarara
bidie labana,
galdarara sartu jat
mutil barrabana!

Oraingo mutiltxuek
zer dabe merezi:
errekan beratu ta
leixiban egosi!

Altu-altuan dago
san Juan Foruko,
ez dala mutil zaharrik
zeruan sartuko.

Badakit zagozana
kortina artian,
neure koplak entzuten
kamixa hutsian.

Errementari baino
hoba da zesteru,
lepo bete palogaz
kolko bete diru.

Nabarnizen ei dago
morokila merke,
txakur txiki bategaz
topinie bete.

Taluak erretako
ona da palie.
Maria Errotakok
alaba parie.

Hamar hamaseiko ta
ohia ta kaixie,
Maiazkunien dago
neskatil gaztie.

Ereño
1. eranskina

Baratzeko pikuak

Baratzeko pikuak
hiru txorten ditu:
neska mutilzaleak
hankak arin ditu.

Hankak arin eta
burua arinago,
dantzan hobeto daki
artajorran baino.

Artajorrara nua
luberrri berrira,
belarra jorratu ta
artua sasira.

Bergarako neskatilen
dote-arriua,
burruntzari zahartxo bat
hiru zulokua.


Badakit dituzula
bat eta bi ere;
esperantza galdurik
ez nago ni ere.

Ai nere txiki polit
txikitxo maitea!
Atoz zaldi gainean
nerekin batera.

Erdi bat izan ez ta
lau kuarto gastatu,
mutil andrezaliak
nekez aberastu.

Bukatutzera nua
hasi detan lana
berriz ezta faltako
hemen zer esana.

*Arantzazu
1. eranskina*



Domingo da domeka

“Domingo” da domeka
astelehena “lunes”.
Oraingo neskatilak
artorik jan gure ez.

Ai mutil hankaluze
begi arranpalo,
jantzan hobeto dakik
artajorran baino.

Dimen erromeria
maietz pazkoatan,
hortxe datoz mutilak
neskak konbidetan.

Txikitxu politori,
zer dozu negarrez?
Aitek tabernarako
dirurik emon ez.

Aitek tabernarako
dirue emoteko,
berak hartuko leuke
nok emon balego.

Hamalau zapatarik
ein dabe juntea:
zeinek lehenago josi
zapata puntea.

Gaztea nintzanean,
denpora batean,
ez nintzan sosegatzen
ezkondu artean.


Eguzkie joan da
bere amagana,
bihetorriko da
denpora ona bada.

Gazteak badakizu
zelan dantza egin:
burua gora-gora
kaderai eragin.

Amorebidetako
bizi-alargune,
bakarrik egon barik
hartuizu lagune.

Tiriki tauki tauki
mailuaren hotsa,
hamalau hargin baino
hoba dok arotza.

Zeberio
1. eranskina



Eibarko neskatilak

Eibarko armeruak
txepetxan hankokin,
Mallabin gora doiaz
Bizkaiko neskekin.

Eibarko neskatilak
pantorrila motzak,
pixkat goratxuago
gaztaina-lokotzak.

Azak eta porruak
lehengusuak dira,
Eibarko armeruak
zelosuak dira.

Eibarko neskatilak
elizara sarri,
elizatik urtenda
mutileri zirri.

Eibarko armeruak
bigote zaharrakin,
Isasin gora doiaz
Bizkaiko neskekin.

Ederra zara baina
ez zara larrosa,
kolore gorri-zuri
mundu engainosa.

Tiriki-tiki-tauki
mailuaren hotsa,
noiz ezkonduko ete da
gure neska motza?

Amak eman balestaz
hamar hamaseiko,
ezkonduko nitzala
udaberrirako.

Urruku-tuku-tuku
ez neri ikutu,
aita ganbaran da ta
sentiduko gaitu.

Aita ganbaran eta
ama sukaldian,
gure neska-mutilak
eskilarapian.

Bide labana dago
goiko ganbarara,
galdaran sartu jata
neska barragana.

Oraingo neskatilek
zer dute merezi:
errekan jabonduta
lixiban egosi.

Eibar
1. eranskina

Eperrak kantatzen du

Eperrak kantatzen du
goizian ihintzetan;
ez sekulan fiatu
neskatxen hitzetan

Berastegin badituk
hiru neskatila:
Joxepa, Bernarda ta
Mari pantorrila!

Oraingo neskatilak
balute norekin,
ezkonduko lirake
bi oilo dotekin.

Oraingo mutil gaztek
arroska burua,
lepoan korbata ta
ziarro purua.

Etxea zuritzeko
ona da kisua;
horroko neskatx horrek
ipurdi pisua.

Zuloa tapatzeko
ona da platera,
zelatan dagonari
begiak atera!

A(g)ure buru haundie
ganbelapekoa,
hi baino nahigo nitek
hogeit urtekoa.

Agure txartxar batek
bart gure amari,
gona altxatu dio
tralaran tralari.

*Nafarroa
1. eranskina*

Ezkondu nintzanean

Ezkondu nintzanean
bost gona nituan,
bi puskatu ziran ta
bi saldu nituan.

Soinean daukadana
oso daukat zaharra,
berriak egiteko
esperantza txarra.

Ezkongai nintzanean
amaren etxean,
txokolatea neukan
gorderik kofrean.

Ezkondu eta gero
kofrerik ez inun,
txokolatea berriz
sudurretik urrun.

Azak eta borrajak
olioz beterik,
ezin jan ohi nituan
negola ezkongairik.

Ezkondu eta gero
urtebete bage,
porrusaldea neukan
oliorik gabe.

Mañaria
1. eranskina

Gora-gora begitu

Gora-gora begitu,
lainoak agiri,
horrexek mutilorrek
tontoa dirudi.

Txapel azulak eta
barradunak frakak,
Arratian ei dagoz
mutilak galantak.

Orain etorri jaku
herrira modea,
txapel azulak eta
merinejakea.

Urkiola ganeko
lilio-lorea,
handixek gora dago
zerura bidea.

Lapatza goiarina
Undurra behekoa,
bien erdian dago
Undurra goikoa.

Undurra goikoan dagoz
hiru neskatile,
kalabazea jan da
lodituten dira.

Iturrira joan da
laster da etorri,
barragarriren bat
topau ez balegi.

Harro-harroak dira
azukarilloak,
holakoxeak dira
Zeanurikoak.

A mutil hankaluze,
pipa hartzailea,
txingarrak erre deutso
surraren puntea.

Ikatza zabaltzeko
ona da larrina,
saltzeako ei dauko
alaba zaharrena.

Oraingo mutiltxoak,
bana binakoak,
lapiko tapatzako
alagalakoak.

O mutil hankaluze
txotxo armario,
kantzontzilo-kordela
bernatik dario.

Oraingo neskatilak
dauken gogoagaz
ezkonduko litzakez
ota-moltsoagaz.

Ama neurea beti
agiraka neuri,
iluntzean goizegi
etorriagaiti.

Hurrengo agiraka
eiten deustanean,
ez nazela etorriko
gaberdira artean.

Arrabako landea
balego Gorbaien,
hantxe egingo geunke
zirikin zakien.

Negar da negar dago
Errosa geurea
katuak jan deutsalara
bai lebadurea.

Ez egizu, Errosa,
katua mankatu,
saguak kuxetako
katua beogu.

Despedidea da ta
ibili kontuan,
akabatera noa
hurrengo puntuan.

Zeanuri
1. eranskina



Hasiko naz hasitera

Hasiko naz hasitera:
ai hau da lehenengo bertsoa,
beronek emongo'tsue
dantzan e(g)iteko gogoia.

Euskeraz kantauko'tsuet,
erderaz ez dakit eta,
aspaldion soinurik be
ez dot jo bere eta.

Gorbei altuan edurre,
bota surtara egurre,
alaba galanten amak
mutil zantarren bildurre.

Urkiolako benteruari
larogeigarren urtean
zaldar batek urten deutso
orkatilako zanean.

Hauxe da despedidea,
despedida honen tritea,
berbarik egin bot txarto,
parkeske nago jentea.

Zeanuri
2. eranskina

Izen itsusia da

Izen itsusia dun
neskazahar izena,
aditu hutsarekin
lotsatzen naizena.

Soinekorik onena
dinek bada jantzi
gainera eskuetan
sonbrilla ta guzi.

Oraingo mutil guztiak
hainbeste malizi,
nik ikusi orduko
zigazten igesi.

Neska zahar-zahar
denbora pasatu,
zergatik ez hintzan bada
lehenago ezkondu?

Neri inork ez esan,
neonek ezin esan,
horregatik gelditu
ninuen neskazahar.

Aurten gure herrian
pobriak arlote,
Pasaian ere hala
dirala diote.

Irun
1. eranskina


Josepantoni kolore gorri

Josepantoni koloregorri
kapitan baten alaba,
aitak doterik emon ez arren
bilatuko dau senarra.

Astelehenian ezkondu eta
martitzenian basora,
eguztenian orbela batu,
egubengan etxera.

Bariku-eguenian bedarra ebagi
zapatuan laietara,
domekan barriz afan guztiaz
hamarretako mezara.

Mañaria
4. eranskina



Lapikotxo txurian

Lapikotxo txurian
okelatxo gutxi;
oraingo motilakin
konpianza gutxi.

Lapiko gatz gabeak
ez dauke gustorik;
oraingo motilakin
ez dago gizonik.

Eperrak kantatzen do
goizean ihintzetan;
ezin fia liteke
motilen hitzetan.

Fiatzen bazerate
motilen hitzetan,
eroriko zerate
harri labainetan.

Pikuaren hostoa
itzal egiteko;
ederregie zera
nekazaritzako.

Gora begiratuta
hodaiek agiri;
horroko motil horrek
eroa dirudi.

Erreka baztarreko
lirio lorea;
sonbreilu zuri eta
kasaka berdea.

Mantalaren sokea
ederra gerrian;
zu baino maiteagoak
baditut herrian.

Ahuntzek adarrak haundi,
belarriak luze;
ez naiz ni maite gure
dotearen baize.

Haizeak dantzatzen do
pago adardune;
motilek ez dik behar
andra alargune.

Zozoa ari zera
alperrik kantari,
nere maite polita
ez da nahi etorri.

Goien dago Larrunza,
parean Igartu;
horra bada Lorenza
ni zuzaz behartu.

Aurten erosi ditut
lau libra olio,
dantzan ez dakitenak
ez dute balio.

Oiloak badauke
barrupean gantza;
joko degu soinua
ein zazute dantza.

Baratzako gindea
jan det baino mina;
sekulan ez zat juango
zukanako mina.

Hiru ta bi dira bost,
bost eta bi zazpi;
neskatxak motilakin
ez zebiltzek gaizki.

Ai, ai, ai motilzaharra,
trabenan al hago?
Bitorian oihala
diruetan dago.

Ataun
1. eranskina



Laztanen portalian

Laztanen portalian
dagoz arbola bi,
bata da naranjia
bestia madari.

Haren azpien dagoz
damatxu polit bi,
bata da dana baltza
bestia lar zuri.

Begoñako iturriek
baleki berbetan,
zer esan euko leuke
astelehen goizetan.

Astelehen-martitzenak
egunik onenak,
ohian pasetan jozak
Anton Torre zenak.

Atsua ta aguria
alkarren atzian,
Basarganera dire
pekorotz artean.

Artea
1. eranskina

Mahatsak orria zabal

Mahatsak orria zabal
Begoña gainian,
neu bere hangua naz
bai zorionian.

Etxe txiki bat daukat
Artxanda gainian,
euririk ez da sartzen
aterri danian.

Amak emon baleustaz
hamabost hogeiko,
ezkonduko nintzala
etxaguntzarako.

Barregarriak dira
katuen lorratzak,
biribilak ondora
puntara zorrotzak.

Arin-arin eiten dau
basuan erbiak,
erratuten dauzala
punturik erdiak.

Arin-arintxua da
itsuen soinua,
zapatai apurtzeko
azpiko zorua.

Bilbotik ekarri dot
atso bat ostuta,
leihoan ipini dot
kasketa moztuta.

Atsoai gorde deusot
ule kopetia,
kostako jako bada
bera topetia.

Hamar-hamaiketako
eguzki berua,
atxurra itxi soluan
ta etxera nua.

Txikitxo politorrek,
zer dozu negarrez?
Amak jolaserako
baimenik emon ez.

Mañaria
1. eranskina

Mendi altuen edurre

Mendi altuen edurre,
bota surtera egurre;
alaba galantan amak
mutil zantarren bildurre.

Ederregia zara zu
soloan beharrerako,
hobe da kaballerua
kalean paseorako.

Neure nobiaren ama
asto baten jabe dana,
astoak ekarriko'tso,
etxean behar dauana.

Begire nago begire
goiko kamino barrire,
noz etorriko ete dan
neure maitea herrire.

Abadiñoko Karmentxu
neska polite zara zu,
neska polite zareala
urrundik ageri dozu.

Aite gureak amari,
gona gorrie ekarri,
luze dala labor dala,
garri-garritik ebagi.

Hau da pandero barrie
Durangotik ekarrie,
hamar erreal pagaute
dana da urregorrie.

Neure laztanak jaten dau
mailukiekaz ogie,
ostera bere eukiko dau
luze ta linde gerrie.

Mutil txapel gorriduna
jantzan ondo dakizuna,
zuk izango dozu emazte
dama jake zuriduna.

Mari Karmen joskilea
etxe oneko alabea,
egun baten josten dauz
prakak eta alkondarea.

Dindilin dango Mariñe
beti honela bagine,
beti honela izateko
burue dauket arine.

Zeberio
2. eranskina

Mendirik mendi lainuak

Mendirik mendi lainuak,
pagorik pago usuak.
Ez dira errez harrapatzen
maiorazkuen pausuak.

Nere pandero berria
Billbotikan ekarria,
bost errial pagatuta
erdia urregorria.

Ondarruko kaletan
mutilzaharrak bentanetan,
nobiia bilatzeko
Santa Klarai erreguetan.

Neskatilatxo zerzeta
ederra dezu kopeta,
zeure soineko txaketa
hamar dozena kortxeta.

Neskatila morenia
marunazkua gonia,
abarka-traila beltzakin
dirudi gipuzkuania.

Neure maitia, zer dezu?
Kolore txarra daukazu,
ezpanak sikuak eta
ogirik be ezin jan dezu.

Gaztiak badakizute
zela bihar dan gauzia,
erten eizute dantzara eta
estrainatzeko plazia.

Soldadu txaketa gorri,
zertan dek pandero hori?
Hamalau errial da erdi
Madrilen kostia neuri.

Baserritarra izanagaitik
ez egin neri burlarik,
nere soineko perkalezkuak
ez dauka merinakerik.

Arantzazu (Oñati)
2. eranskina



Oletan ei dagoz

Oletan ei dagoz
hiru neskatila,
asko egoten dira
eurari begira.

Bata da Mari Pepa
bigarren Carlota,
hirugarren hoi bere
aldeko salada.

Erreka eskinako
zelai eder baten
mutil gazte bat euan
bibolina jotzen.

Lehelengo preguntea
neuk ein nion hari,
biok juango ginala
biok soinulari.

Orratzaren punteak
irabazte gutxi,
endemas tabernara
bidea badaki.

Sagar bat erreta
ta beste bat gordinik,
haxe bizimodua
pasatzen dot bai nik.

1. eranskina

Oraingo neskatilen

Oraingo neskatilen
dote-arrigua,
burruntzalitxu zahar bat
hiru zulokua.

Mendata baino gorau
mendi-etxe baten,
hamalau neskatila
morokila jaten.

Maritxu Torrekuak
dirautso amari:
—Txomintxu auzokua
gustatzen jat niri.

Ama, buruban min dot
ez esan aitari,
gaubeko errondiak...
ondo galdu nau ni!

Nabarnizen ei dago
morokila merke:
txakur txiki batatik
galdara bat bete.

Ezkonduten bazara
Lumo aldekuakin,
ibili biharkozu
pitxer-murkuakin.

Hango pitxer-murkoko
esnien gozua,
harek engainetan jok
Gernika osua.

Oizen kanpaia da ta
Oizera nua ni;
nogaz ibili nazan
ez esan amari.

Busturiko miruek
pikue zorrotza,
arin susmau darua
usoen hainka hotsa.

Painelo zuri-gorri
erretratuzkoak,
Juanpetxuk Andresari
erregalatuak.

Goizean goiz aldera
arrantzalia kaiera,
ahal dan bezela eguna
itxasuan pasatzera.

Gernika
1. eranskina

Txikitxu polit majoa

Txikitxu polit majoa,
jauna ni Markinekoa,
lau ziri baino nahiago nuke
bazina neure herrikoa.

Errekan dago harrie,
haren gainean txorie.
Neskato koloregorri
mutilen engainagarrie.

Itsasoan ure lodi,
ez da hondarrik agiri;
nire laztana ikustearren
pasako ninteko handi(k).

Itsasoan doienean
ontzia kristalezkoa,
zenbatek esango ote de
Birgina Begoñekoa.

Galdakao
2. eranskina



Urkiola ganeko

Urkiola ganeko
haxiaren hotza,
hantxe topau genduban
praile burumotza.

Durangon bazkalduta
Mañarian gora,
zoztorra sartu jakun
eperdian gora.

Atsua ta aguria
hasarratu dira,
atso demoninuak
praketatik tira.

Atsua zalakuan
astuan hankia:
—Geldi, geldi, Maritxu,
eingo'gu bakia.

Iretargiak argi
Igeko kalia,
esaidazu maitia
nun bizi zarian.

Kalian gora-behera
serio-serio,
txordiren puntetatik
zorria dario.

Pentsamentuban dago
san Pedro Foruko,
ez dala mutilzaharrik
zeruban sartuko.

Abadiari eruan
erregalu murtzila,
ezpanak koipeztuta
ha dabil mutila.

Agure zaharrak ditu
hiru elementu:
eztula ta gorrua
eta uzkerak pranku.

Agure zurku-murku
pipe hartzalia,
txingerrak erre dautso
surraren puntia.

Gernika
1. eranskina

Utzi Lekunberri

Utzi, Lekunberri,
Etxarri ta Aldatz;
pobre gertatu dira
aurten lurrez babaz.

Arruitz hori bidea,
guzien burue,
hor izanen omen da
saltzeko modue.

Madotz eta Oderitz
Astitz ta Mugiro;
horietan Jainkoak
zerbait emen digu.

Baribar ta Irebes
goazen Allire;
hoietan ez omen da
eraiteko dine.

Errazkin da Albisu
Azpiroz Gorriti,
baban pasia libre
kamio berriti.

Hamazazpigarrena
hor dago Lezeta;
ikazkin batenikan
herri hortan ezta.

*Nafarroa
1. eranskina*

1. eranskina

The image displays a musical score for a piece titled "1. eranskina". The score is written in 2/4 time and is in the key of B-flat major (one flat). It consists of three systems of piano accompaniment, each with a treble and bass staff joined by a brace. The first system (measures 1-7) begins with a treble staff containing a whole rest followed by a quarter note B-flat, and a bass staff with a whole rest. The second system (measures 8-14) starts with a treble staff containing a quarter note G, a quarter note A, and a quarter note B-flat, followed by a quarter rest, and a bass staff with a quarter note B-flat, a quarter note G, and a quarter note F. The third system (measures 15-21) features a treble staff with chords and a bass staff with a steady quarter-note accompaniment. The piece concludes with a double bar line at the end of the third system.

The image displays a musical score for piano, organized into three systems. Each system consists of a treble clef staff and a bass clef staff. The time signature is 2/4. The first system begins with a whole rest in the treble staff and a bass line starting on C4. The second system starts at measure 8, with a treble staff containing a dotted quarter note followed by an eighth note, and a bass line continuing the previous pattern. The third system starts at measure 15, ending with a double bar line and repeat dots. The notation includes various note values, rests, and dynamic markings such as accents and hairpins.

The image displays three systems of piano sheet music. Each system consists of a grand staff with a treble and bass clef. The music is written in 3/4 time and B-flat major. The first system (measures 1-7) begins with a whole rest in the treble and a quarter rest in the bass, followed by a triplet of eighth notes in the treble. The second system (measures 8-14) starts with a chord in the treble and continues with eighth notes and chords. The third system (measures 15-21) concludes with a final chord in the treble and a quarter note in the bass. Triplet markings are present in measures 1, 5, 9, and 13.

The image displays a musical score for piano, consisting of four systems of music. Each system is written for two staves: a treble staff and a bass staff. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. The first system begins with a treble staff containing a whole rest followed by a quarter note B-flat, and a bass staff with a whole rest. The second system starts at measure 9, with the treble staff featuring a series of eighth notes and a triplet of eighth notes, while the bass staff continues with a simple eighth-note accompaniment. The third system starts at measure 17, showing more complex rhythmic patterns in the treble staff, including chords and sixteenth notes, with the bass staff maintaining its accompaniment. The fourth system starts at measure 25 and concludes with a first and second ending. The first ending leads to a final chord, and the second ending leads to a final cadence. The score is presented in a clean, black-and-white format on a light gray background.

The image displays three systems of musical notation for a piano piece. Each system consists of a grand staff with a treble and bass clef. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The first system (measures 1-7) begins with a whole rest in the right hand, followed by a series of chords and a melodic line. The second system (measures 8-14) continues the melodic and harmonic development. The third system (measures 15-21) features triplet markings in the right hand and concludes with a double bar line.

2. eranskina

The image displays a musical score for a piece titled "2. eranskina". The score is written for piano and is in 3/4 time. It consists of three systems of music, each with a treble and bass clef staff. The first system begins with a treble clef staff containing a series of chords and a bass clef staff with a simple accompaniment. A first ending bracket is placed over the final two measures of the first system. The second system starts at measure 7, indicated by a small "7" above the treble clef. It continues with similar accompaniment and includes a second ending bracket. The third system starts at measure 14, indicated by a small "14" above the treble clef, and concludes with a final cadence. The notation includes various chord symbols, stems, and beams, typical of a piano accompaniment score.

The image shows a page of piano sheet music in 3/4 time, featuring a melody in the right hand and a bass line in the left hand. The music is divided into three systems, with a first and second ending at the end.

System 1 (Measures 1-6): The right hand begins with a half note G4, followed by quarter notes A4 and B4. The left hand plays a steady eighth-note bass line: G3, A3, B3, C4, D4, E4, F4, G4.

System 2 (Measures 7-12): The right hand features a series of chords: G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter). The left hand continues with eighth notes: G3, A3, B3, C4, D4, E4, F4, G4.

System 3 (Measures 13-16): The right hand has chords: G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter), G4-B4 (quarter). The left hand continues with eighth notes: G3, A3, B3, C4, D4, E4, F4, G4.

Endings: The piece concludes with a first ending (marked '1.') and a second ending (marked '2.'). Both endings consist of a half note G4 in the right hand and a quarter note G3 in the left hand.

The image displays a musical score for piano, consisting of two systems of music. Each system is written for a grand piano, with a treble clef on the upper staff and a bass clef on the lower staff. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The first system begins with a whole rest in the treble staff, followed by a series of chords and a melodic line in the bass staff. The second system starts at measure 8 and includes a repeat sign with first and second endings. The third system starts at measure 16 and also features first and second endings. The notation includes various chord symbols, melodic lines, and dynamic markings.

3. eranskina

The image displays a musical score for a piece titled "3. eranskina". The score is written for piano and is organized into three systems of two staves each (treble and bass clef). The time signature is 6/8. The key signature has one flat (B-flat). The first system consists of six measures. The second system, starting at measure 7, also consists of six measures. The third system, starting at measure 13, consists of six measures and includes a first ending (marked "1.") and a second ending (marked "2.") at the end of the piece. The notation includes various chords, arpeggios, and melodic lines in both hands.

4. eranskina

The musical score for "4. eranskina" is presented in a grand staff format, consisting of five systems of two staves each (treble and bass clef). The piece is in 3/4 time. The first system (measures 1-7) begins with a treble clef staff containing a whole rest followed by two eighth notes, and a bass clef staff with a whole rest. A repeat sign follows, with the first ending (marked '1.') leading to a second ending (marked '2.'). The second system (measures 8-14) continues the accompaniment with chords in the treble and eighth notes in the bass. The third system (measures 15-21) features a first ending (marked '1.') that leads to a second ending (marked '2.'). The fourth system (measures 22-28) continues the piece with similar accompaniment. The fifth system (measures 29-35) concludes with a first ending (marked '1.') that leads to a final second ending (marked '2.').

Iturriak

- ABURRUZAGA, Xabi. *Bizkaiko trikitixa*. Donostia: Bizkaiko Trikitixa Elkartea, 2004.
- JAINAGA, Adolfo; ZABALETA, Iñaki. *Soinu txikirako kantak [1]*. Donostia: Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 1996.
- . *Soinu txikirako kantak [2]*. Donostia: Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 1997.
- . *Soinu txikirako kantak [3]*. Donostia: Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 1998.
- . *Soinu txikirako kantak [4]*. Donostia: Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 2002.
- KALZAKORTA, Jabier. *Dantza-kopla zaharrak*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2007.